

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

1. Zer da jakinarazpen hau?

2020ko ekitaldian ordaindu zenituen interes, komisio eta gastu batzuk zerrendatzen dituen agiri bat da. Ordainketa horiek guztiak titular/titularkide/abal-emaile gisa gure erakundearekin izenpetu zenituen finantziazio-kontratuekin erlazionatuta daude.

2. Jakinarazpenean agertzen diren zenbatekoak ordaindu behar ditut?

Ez. Dagoeneko ordainduta daukazu, 2020an. Agiri hau informazioa emateko besterik ez da.

3. Zergatik bidali didazue jakinarazpen hau?

Jakinarazpenean zehazten den kontratuaren edo kontratuen titularra, titularkidea edo abal-emailea zarelako, eta, Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrari jarriki (banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean izan beharreko erantzukizunari buruzkoa), zure finantza-erakundea behartuta dagoelako bezero guztiei jakinarazpen hau bidaltzera.

4. Zenbatean behin jasoko dut jakinarazpen hau?

Urtean behin. Erosoagoa bazaizu eta nahiago baduzu jakinarazpen hau eta beste batzuk posta elektronikoz jaso, idatzi zure helbide elektronikoko eguneratua bezeroaren gune pribatuan.

5. Informazio honek badu eraginik zergetan?

Ez. Informazioa emateko besterik ez da.

6. Zer da abal-emailea izatea? Zertan desberdintzen da titularra/titularkidea izatetik?

Abal-emailea: finantziarioari solidaritatez sendotasuna ematen dion pertsona da, eta kontratuaren titular/titularkidearen erantzukizun berberak ditu.

Titularra/titularkidea: mailegua hartzen duen pertsona da, eta kontratutik ondorioztatzen diren betebeharren arduraduna da.

7. Nola kalkulatu dira zenbatekoak?

2020ko ekitaldian ordaindu dituzun interes, komisio eta gastu guztien batuketa eginez.

8. Zer da ohiko zigorra?

Ordainagiri bat itzuli izanak sortzen dituen gastuak dira (ez da sartzen berandutze-interesen zenbatekoa).

9. Zer alde dago interesen eta berandutze-interesen artean?

Interesak finantza-eragiketari aplikatzen zaizkionak dira; berandutze-interesak, berriz, ordainagiri bat ordaintzeari uzten zaion egunetik berriro ere ordaintzen den arte sortutakoak dira, eta ez diote eragiten ohiko zigorraren kobrantzari.

TERMINOEN GLOSARIOA

Interesak: kontsumitzaileak finantza-erakundeari ordaintzen dizkion zenbatekoak dira, ondasun bat gaur eskuratzeagatik eta bihar ordaintzeagatik zenbait kuotatan (hileko kuotak, orokorrean). Kuota bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko interesaren ehunekoa (%) bider hil hasieran itzuli gabe geratzen den kapitala egiten da.

Berandutze-interesak: kontratuan ezarritako kuoten ordainketan atzeratzeagatik bezeroak ordaindu behar dituen zenbatekoak dira. Ordainagiria ordaintzeari uzten zaion egunetik berriro ere ordaintzen den egunera arte kalkulatzeko dira, ordaintzeke dagoen zenbatekoaren gainean.

Irekitze-komisioa: CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kobratzen duen zenbatekoa da bezeroaren ordainketa-ahalmena ebaluatzeagatik eta kreditua onartzean eman duen informazioa egiaztatzeagatik.

Irekitze-komisio finantzatua: goian aipatutako irekitze-komisioari CaixaBank Payments & Consumer erakundeak eragiketaren hasieran ordaintzea eta bezeroak kredituaren kuotekin batera itzultzea.

Amortizazio-komisioa: CaixaBank Payments & Consumer egin behar dituen kudeaketengatik bezeroak ordaintzen duen kontraprestazioa da, kreditua osoa edo zati bat kontratuan ezarritako epea baino lehen bertan behera utziz gero.

Ohiko zigorra: ordainagiri bat ordaindu gabe dagoelako CaixaBank Payments & Consumer erakundeak egin behar duen erreklamazioa kudeatzeagatik bezeroak ordaintzen duen zenbatekoa da.

Eskudirua ateratzeagatik komisioa: CaixaBank Payments & Consumer finantza-erakundeak bezeroentzako kutxazain automatikoetan eskudirua prest ipintzeagatik, edo bezeroak banku-kontuan dirua sartzeagatik bezeroak ordaindu behar duen zenbatekoa da.